

Herri bozak eginen dira bihar Jutsi, Arantsusi eta Izuran

E. BIDEKAIN / BAIONA

Bihar herriko hauteskundeak izanen dira Baxenafarroako Jutsi, Arantsusi eta Izura herrietan. Ekainean nehor ez zen aurkeztu eta, beraz, hautesleek boz zuria eman zuten. Ondorioz, hiru herri hauek kontseilurik gabe daude. Hori dela eta, hauteskundeak berriz eginen dira.

Hiru udal hauek 'mendi eskualde' sailkapena eskatzen dute. Mendi eskualde gisa sailkatuak diren herrietako etxaldeen laguntzak eskuratzen dituzte. Aldiz, Jutsi, Arantsusi eta Izuran zenbait laborari etxerentzat baizik ez da izan sailkapena. Sailkapena ukan ez duten etxaldeetako laborariak kexu dira dituzten lan baldintzak direla eta. Azken hamar urteotan egin diren ikerketa batzuen emaitzak agertzen dutenez, hiru herriek betetzen dituzte mendi eskualdeko sailkapena lortzeko baldintzak.

Sailkapen horren eskaerak erantzunik ukaiten ez duenez, hiru herrietako kontseiluek erabaki zuten dimititzea eta ez ziren berriz aurkeztu ekainaren 11 eta 18ko udal hauteskundeetan. Ekainetik honat gaizkak ez direla biziki aldatu adierazi dio Germain Salla Jutsiko auzapezak EGUNKARIARI. Herriko kontseiluaren osatzeko epea berriz ere luzatuko da eta Sallak azaldukoaren arabera «igurikatuko» dute beren eskaerak erantzun bat ukan arte.

Transferentzien txostena irailerako utzi dute EAren ezadostasunarengatik

Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren traspasoa da gakoa

Eusko Jaurlaritzak irailerako utzi du transferentzien lehentasunen txostena, EAK aurkeztu duen ezadostasuna dela eta. Gizarte Segurantza transferitzeko EAJK eta PSE-EEK lortutako hitzarmena «anbiguo» iruditu zaio Carlos Garaikoetxearen alderdiari.

FELIX IRIARTE / GASTEIZ

Jose Antonio Ardanazaren Gobernuak ezin beteko du lege-gintzaldiaren hasieran transferentzietan buruz hartutako konpromezua. EAJK, PSE-EEK eta EAK lehentasunen txostena uda aurretik izenpetzeko hitza eman zuten, baina azken Gobernu Kontseiluan, joan den ostegunean, ez ziren ados jarri.

Irailaren leian, Donostiako Miramar jauregian egingo duten uda ondorengo lenen bileran, gauzak argituta egotea espero dute Jaurlaritzako kideek eta orduan argi berdea emango diote falta diren 45 transferentziak Madrilgo Gobernuarekin nola negoziatu behar dituzten agertuko duen txostenari. Txostenak lehentasunak eta negoziazioa aurrera eramateko irizpideak zehaztuko ditu.

Alderdi sozialistak eta jeltzaleak asteazken arratsaldean akordioa lortu zuten. EAK, aldiz, ez zuen hitzarmena izenpetu. Lehentasunen artean ikerketa zientifikoa sartu nahi zuen eta Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa traspasatzeko irizpideak gehiago argitu, jeltzaleek eta sozialistek hitzartutako idatzia «anbiguo» iruditu



Inazio Oliveri, EAK idazkari nagusi eta Hezkuntza kontseilaria. E. KOCH

baitaie Carlos Garaikoetxearen alderdikideei. EAK iturriek jakinarazi dutenez, PSE-EEK eta EAJK hitzartutakoak «irakurketa ezberdinak» egiteko parada eskaintzen du eta EAK negoziatzen hasi aurretik irizpideak argitzeko eskatu du.

KONZERTU EKONOMIKOAREN SISTEMA

EAren lehen eskakizuna, ikerketaren transferentzia lehentasunen artean sartzea, ontzat eman zuten. Bigarrena, hala ere, ez zuten desbokatzea lortu.

Gobernu hitzarmenak dioenez, EAEK transferentziak eskuratzeko negoziazioa Kontzertu Ekonomikoan ezarritako irizpideen arabera egin beharko da. Jaurlaritzako alderdi abertzaleek Gizarte Segurantzaren traspasoa irizpide hauekin egiteko eskatu dute eta horrek esan nahi du EAEK bildu behar dituela Gizar-

te Segurantzaren kuotak eta EAEK ordaindu beharko dituela prestazio guztiak; hau da, Estatuko Kutxa bakarra hautsi egingo litzateke eta sozialistak ez daude horretarako prest. Hitzarmena bilatzeko, Madrilgo Gobernuarekin konbenioak sinatzea proposatu du Ramon Jauregiren alderdiak.

Irailerako geratu den txostenak hiru bloke ditu falta diren 45 transferentziak eskuz aldatzeko. Lehen blokean arlo ekonomiko transferentziak ageri dira. Hezkuntza profesionala, INEM eta enplegua dira, besteak beste, azaltzen direnak. Bigarrenean autopistak, portuak eta aireportuak daude, eta hirugarrenean Justiziako langileak eta kredituak. Madril eta Gasteizen arteko negoziazio politikoak blokatuta daude martxotik. Orduan bilera pare bat egin zuten, baina ez zuten aurrera egiterik lortu.

Aurrez absolbitutako Andoingo bost gazte epaituko dituzte berriro

DONOSTIA

Auzitegi Gorenak atzera bota du Andoingo bost gazte absolbituz Donostiako Entzutegiak kaleratu zuen sententzia. Leitzarango autobideko enpresen kontra sabotajea egiteaz akusatu zituzten Asier Oartzabal, Xabier Lekuona, Andoitz San Sebastian, Juan Jose Petrikorena eta Aritz Arnaiz. Baina epaiketan aurkeztutako diligentzia gehienak baliogabetzat jo zituen Luis Blaquez epaimahaiko buruak eta absolbitu egin zituen.


Fiskaltzak epai horren kontrako errekurtoa jartzen Auzitegi Gorenean eta honek onartu egin du. Ondorioz, epaiketan aurkeztutako frogak ontzat jo eta epaiketa berriz egiteko agindu du. Epaimahaia ezingo da aurreko bera izan, Auzitegi Gorenak finkatu duenez.

Kasuaren inguruko lehen diligentiak Entzutegi Nazionalen Carlos Bueren eta Baltasar Garzonek egin zituzten. Atxilotuek talde armatuarekin zerikusia ez zutela ikusita, kasua Donostiako Entzutegira ekartzea erabaki zuten.

Entzutegi Nazionalen egindako diligentiak ez zutela motibazio juridikorik eta «ebazpen estereotipatuaren adibide» zirela erabaki zuen epaimahaia. Besteak beste, gazteetako bati egindako telefono entzuketa, etxeetan egindako miaketak eta Goardia Zibilar egindako deklarazioak baliogabetu zituzten.

«ETArekin bitz
egin behar da, ez
HBrekin»

Xabier Arzalluz



Xabier ARZALLUZ. EAJko EBBko presidentea

Bihar elkarrizketa

Egunkaria